

# Euskararen estandarizazio prozesua *Jakin* aldizkarian (1956-1968)

Ricardo Gómez Lópezen gidaritzapean

Eneka Alvarez Loidik eginiko Gradu

Amaierako Lana

**Euskal Ikasketetako Gradua**

Euskal Herriko Unibertsitatea

Letren Fakultatea

Euskal filologia

2015-2016 ikasturtea

## ***Laburpena***

Euskararen estandarizazioaz ia mende erdi joan den honetan, garai hartako eztabaida eta gertaerak aztertzea du xehe honako lan honek. Horretarako, *Jakin* aldizkariko 1956 eta 1968 urteen arteko hainbat artikulu aztertzea erabaki dugu, aldizkariaren sortze urtetik Arantzazuko Biltzarrera arte gai honen inguruan idatzitako artikuluak, hain zuzen. Honela, urte haietako lagin txiki baina esanguratsu honen bidez, estandarizazioaren ingurukoak aztertuko ditugu.

Hau guztia, betiere, urte haietako (1956-1968) *Jakin* aldizkariko artikuluez osatutako corpusean oinarrituz; aldizkariaren sortze urtetik Arantzazuko Biltzarrera arte.

Lanaren egiturari dagokionez, gaikako sailkapena burutu dugu informazioa era argiagoan adieraztearren. Lehenik, sarreran, lanaren helburua, aztertutako corpusa eta lanaren egitura zehaztuko ditugu. Ondotik, bigarren atalean, euskararen estandarizazioaren beharrez eta abiapuntuez jardungo dugu, euskararen egoera nolakoa zen eta estandarizazioa zertarako osatu nahi zen ulertzeko.

Hirugarrenik, estandarizazioari egotzitako norabidea eta bete beharreko helburuak zeintzuk ziren ikusiko dugu. Hizkuntzak bizirautearen beharraz jardungo dugu eta baita kultur hizkuntza izatearen beharraz eta literatur eredu bakarra osatzearen garrantziaz ere.

Laugarren atalean prozesuan pairatutako oztopoak azalduko ditugu. Halako neurriko proiektu bati ekiterako orduan ugari izan ziren beldurrak eta eztabaidak. Eztabaidok ugari izan baziren ere, corpusean agertutako hiru aztertuko ditugu: euskalkien eztabaida, benetako euskal hitzen ingurukoa eta *h* hizkiak eragindakoa.

Hala ere, dena ez zen oztopo eta eztabaida izan. Estandarizazioari ekiteko eta prozesua bultzatzeko, azkartzeko eta babesteko sorturiko hainbat ekimen eta elkarte ere sortu ziren. Bosgarren atal horretan aztertuko ditugu aipaturiko laguntza horiek. Atal horretan aurkituko ditugu zehazki “Euskaltzaindiaren laguntzailleak”, Baionako Biltzarra eta Ermuko idazleen bilkura. Horrez gain, atalari amaiera emateko 1968ko Arantzazuko Biltzarraz arituko gara, biltzar horretan eman ziolako Euskaltzaindiak hasiera ofiziala estandarizazioari.

Amaitzeko, lanaren bidez ateratako ondorioak zein diren aztertuko dugu. Ikusitako guztiarekin estandarizazioaren lehen urte haietan izaniko ikusmolde eta pentsamenduak nolakoak ziren ikasi ahal izango dugu eta baita pentsaera horiek estandarizazioaren eraikuntzan izaniko isla eta eragina ere.

# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>1</b>
1.1 Helburua .....	1
1.2 Azterturiko corpusa .....	2
1.3 Lanaren egitura .....	4
<b>2. Euskararen estandarizazioaren beharraz eta abiapuntuez</b> .....	<b>5</b>
<b>3. Norabidea</b> .....	<b>8</b>
3.1 Hizkuntzak bizirautearen behararen zergatiak .....	9
3.2 Kultur hizkuntzaren beharra .....	9
3.3 Literatur eredu bakarra .....	10
<b>4. Oztopoak</b> .....	<b>12</b>
4.1 Euskalkien eztabaida .....	12
4.2 Zeintzuk dira benetako euskal hitzak? .....	14
4.3 H hizkiaren eztabaida .....	17
<b>5. Laguntzak</b> .....	<b>21</b>
5.1 Euskaltzaindiaren laguntzaileak .....	21
5.2 Baionako biltzarra .....	22
5.3 Ermua'ko idazleen bilkura .....	24
5.4 Arantzazuko biltzarra .....	25
<b>6. Ondorioak</b> .....	<b>26</b>
<b>7. Bibliografia</b> .....	<b>28</b>

# Euskararen eredu estandarren inguruko eztabaidak

## *Jakin* aldizkarian (1956-1968)

### **1. Sarrera**

Euskararen estandarizazio garaian, askotariko eztabaida asko izan zen. Eredu estandar bakarra eraikitzeko nahi horretan, proiektuaren inguruan ikuspegi eta iritzi ezberdin ugari plazaratu ziren. Lehen eztabaida nagusia eredu estandarra beharrezkoa ote zen izan zen, batzuentzat zinez beharrezko zena beste batzuentzat euskararen inguruan har zitekeen erabakirik okerreza baitzen. Horrez gain, estandarren alde egiten zutenen artean ere ez zegoen erabateko batasunik, zein eredu erabili eta zein erabaki hartu hautatzeari dagokionez.

#### ***1.1 Helburua***

Lan honen helburua aipatutako eztabaiden inguruan idatzi eta *Jakin* aldizkarian plazaratu ziren tirabirak aztertzea da. Honetarako, estandarizazioaren lehen urteetan argitaratutako artikuluak aztertu dira: aldizkaria 1956an sortu zenetik Arantzazuko Biltzarra ospatu zen urtera arte, hots, 1968ra. Hala, garai hartako eztabaiden erakusgarri txiki baina garrantzitsu baten berri ematea da helburu nagusia.

Estandarizazio prozesuaren lehen urteak horiek izaki, ezerezetik hasi eta proiektu osoa gauzatu beharra zegoen. Ondorioz, guztia zegoen eztabaidatzeke eta, beraz, eztabaida gogorrenak orduan gauzatu ziren. Honexegatik aztertu ditugu lehen urteetako *Jakin* aldizkariko artikuluak, aldizkariaren hasiera urteetatik Euskara Batuen sorrera ofizialera bitartekoak, hain zuzen. Prozesuak berak eta eztabaidek ordutik aurrera luze iraun bazuten ere, lanaren luzerak muga kronologiko estuak ipintzera behartu gaitu eta ezin izango ditugu hemen jorratu Arantzazuko Biltzarretik aurrerakoak.

Halako prozesu konplexu baten aurrean eztabaidak izatea gauza arrunta da, baina

eztabaidok gaurko perspektibatik aztertuta, beste hainbat alorretako eztabaidek prozesu linguistiko hartan izaniko pisua handia izan zela ohartzen gara: Euskal Herriko gatazka politikoa, abertzaletasunaren ikuspegi ezberdinak, nolako herria eraiki nahi zen eta zein baloretan oinarrituta egon behar zuen... Halako eztabaidak nahasi ziren guztiz linguistikoa zen eginbeharraren atzean eta, inolako zalantzarik gabe, nahasketa horrek prozesua moteldu eta oztopatu egin zuen.

Lan honen bidez, eztabaidaturiko gai nagusiak zeintzuk izan ziren jorratuko dugu. Izan ere, aldizkari horrek estandarizazio prozesua hasiera-hasieratik bizi izan zuen eta ugari izan dira bere orrialdeetan plazaratutako iritzi eta usteak.

### ***1.2 Azteturiko corpora***

Corpusa osatzeko, *Jakin* aldizkariaren webgunean digitalizatuta dauden artikulua aztertu ditugu eta, beraz, jarraian zerrendatutako artikuluen bidez osatu dugu lan honetarako corpora. Era argiago batean adieraztearren, artikulua kronologikoki ordenatu ditugu:

- 1956:
  - A.Z. «Batasun izpiak». *Jakin* 2, 166-167.
  - P.[ernando] M.[endizabal]. «Euskal gramatika llabur». *Jakin* 2, 168-169.
  
- 1957:
  - Pernando Mendizabal. «Jakintitzak». *Jakin* 3, 121-122.
  - Bastarrika'tar Iñaki. «"Txillardegi" jaunari». *Jakin* 5, 99-102.
  
- 1959:
  - Azurmendi'tar Juan. «Euskerak zergaitik bizi bear duan». *Jakin* 9, 75-80.
  - Intxausti'tar Joseba. «Illobira bultzaka». *Jakin* 9, 83-88.
  - Intxausti'tar Joseba. «Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. IV. Bilabo, 1959.». *Jakin* 11, 86-91.

- 1960:
  - Zuzendaritza «Batasun billa». *Yakinen geigarri* (Otsaila 1960), 1.
  - Zuzendaritza «Euskaltzaindiaren laguntzailleak». *Yakinen geigarri* (Epailla 1960), 1.
  - Kamiñazpi [Jose Maria Etxaburu]. «Zeintzuk dira euskal itzak». *Jakin* 13, 61-68.
  
- 1961:
  - Aurraitz [Balendin Aurre Apraiz]. «Nora eroan gura gozuez». *Jakin* 15, 73-76.
  
- 1965:
  - Zuzendaritza «Baiona'ko biltzarraren erabakiak». *Jakin* 18, 20-28.
  - Kamiñazpi [Jose Maria Etxaburu]. «Euskeraren batasuna dala-ta». *Jakin* 19, 14-16.
  - Jose Azurmendi. «"H" letrari buruz galdezka». *Jakin* 20, 25-27.
  
- 1968:
  - Zuzendaritza «Batasuna bai ala ez». *Jakin* 31-32, 1-13.
  - Gerediaga Alkartera «Deia». *Jakin* 31-32, 15-16.
  - J.[uan] A.[ntonio] Letamendia. «Zenbait iritzi batasunari buruz». *Jakin* 31-32, 19-27.
  - Salbador Garmendia. «Euskeraren batasuna». *Jakin* 31-32, 28-38.
  - Imanol Laspiur. «Euskal-joskera». *Jakin* 31-32, 39-57.
  - Aingeru Irigaray. «Literatur-euskera batasun baten aldera». *Jakin* 31-32, 58-61.
  - Piarres Lafitte. «Batasunaren bideak». *Jakin* 31-32, 62-65.
  - Biltzarkideak «Erabakiak». *Jakin* 31-32, 73-74.
  - Euskaltzaindia «Agiriak». *Jakin* 33, 53-54.

### **1.3 Lanaren egitura**

Lanaren bigarren atalean euskararen eredu estandarren beharraz arituko gara, hau da, “zertarako euskara estandarra?” galderaren erantzunaren bila abiatuko gara; ondoren, euskararen kasua ulertzeko gako garrantzitsu batzuk adieraziko ditugu: belaunaldien arteko talka, 1960ko hamarkadako egoera soziopolitikoaren baldintzak.

Hurrengo ataletan zehar, corpusaren azterketa gauzatu dugu eta ondorioak era argiago batean azaltzarren, gaikako sailkapen batean aurkeztu ditugu: norabidea, oztopoak eta laguntzaileak. Ondorengo lerroetan atal bakoitza zehatzago azalduta ikusiko dugu.

Hirugarrenean, prozesuaren norabidea argitze aldera, *Jakineko* aleen gainean lan egingo dugu. Norabidea diogunean, prozesu horren helburu nagusiak zeintzuk ziren aztertzea esan nahi dugu; horretarako, estandarizaziorik gabeko hizkuntzaren oztopoak ezagutu eta horiek gainditzeko, euskarak zituen hutsuneak zein ziren eta nola bete nahi ziren ikusiko dugu. Puntu honetan bertan topatu ahal izango ditugu, bestalde, euskara bizitzeko behararen argudiaketa, kultur hizkuntzaren eztabaida eta literatur hizkuntza batu baten behararen ingurukoak.

Laugarrenik, estandarizazio prozesu horretan izan ziren eztabaida nagusiak azalduko ditugu. Gai sinpleak iruditu arren, eztabaida sutsuak ekarri zituzten eta, horretarako, hainbat aipu ezberdin ere ekarriko ditugu orriotara, garaiko tentsioen adierazpide gisara. Izan ere, eztabaida horiek prozesuaren oztopo izatera iritsi ziren une batzuetan, prozesu osoaren blokeoa ekarriko zutela pentsatzea ere ez baitzen arraroa izan.

Lanaren alor honetan, irakurgai diren eztabaidak honakoak dira: euskalkien ingurukoak (eredu estandarrak zein euskalkiren gainean oinarritu behar zuen, eredu estandarrak euskalkiak hilko zituen ala ez, zein ondorio izango zituen), euskal hitzen gainekoak (garbizaletasuna, mordoilokeriak) eta, azkenik, batasunari buruzko eztabaidetan sinbolo bilakatu zen *h* hizkiaren ingurukoak. Azken honek sorturiko zalapartek garaiko egoera nolako den argi erakutsiko digute.

Bosgarren atalean, berriz, prozesua laguntzeko edota bultzatzeko eginiko ekarpenak eta ekimenak aztertuko ditugu “Laguntzak” atalean. Honi dagokionez, bai Euskaltzaindiari babesa adierazteko helburuz, bai hari presioa eragiteko asmoz sorturiko ekarpenak aztertuko ditugu.

Gauza jakina da, horrelako laguntzarik gabe, nekez garatuko zela prozesua, ekimen horiek eztabaidak baretu eta 1968ko Arantzazuko Biltzarrean Euskaltzaindiak erabaki praktikoak har zitzan ahalbidetu baitzuten.

Seigarren atalean, azkenik, ikusi ditugun artikuluetatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu.

## **2. Euskararen estandarizazioaren beharraz eta abiapuntuez**

Inguratzen zuten beste hizkuntza nagusiek ez bezala, joan den mendearen erdialdean euskarak artean ez zuen eredu estandarrik. Honek hainbat esparru formaletara iristeko zailtasunak ekartzen zizkion hizkuntzari: irakaskuntza, kultura eta komunikabideak, esate baterako.

Baina nola egin hori estandarrik gabe eta hainbat euskalkitan banatuta egonik? XX. mendearen erdialdean tokian tokiko hizkerek erabateko nagusitasuna zuten eta estandarraren beharra gero eta argiago bilakatzen ari zen. Euskal Herriko hainbat bazterretako euskaldunek erdaretara jo beharra zuten elkar ulertzeko eta euskara etxerako geratzen ari zen, lagunartean eta familian. Aldi berean, botere gune nagusietan erdarak jaun eta jabe ziren. Laburbilduz, egoera erabat diglosikoa bizi zen Euskal Herrian.

Gauzak honela, pixkanaka estandarizazioaren beharraz hizketan hasi ziren belaunaldi berriak. Baina estandarra osatzeko aldarrikapen hura ez zen guztien gustukoa izan eta kontrako iritziak berehala hasi ziren agertzen: eredu bakarra



aukeratuz gero, hura nagusitu eta euskalkien aberastasuna galtzeko arriskua; beste euskalkietako hiztunek ez zutela sekula ulertuko eta, beraz, ezta ikasiko ere. Gainera, lotsak eta, orobat, konplexuak ugarituko zirela eta, euskara estandarren izenean euskalkiak galtzeko arrisku larria ikusten zuen hainbatek. Beraz, eztabaida gogorra izango zen, asko baitzegoen jokoan: euskararen etorkizuna eta etorkizun horren nolakotasuna.

Bestalde, egoera diglosikoak euskaldunengan eragin negatibo sakona izan zuen; izan ere, estandarizazio prozesuak bestelako eztabaida bat ere plazaratu zuen: zertarako estandarra? Euskarak balio al du gauza jasoetarako? Eta balioko balu ere, zertarako nahi ditugu alor horiek euskaraz? Batzuen ustetan, lagunartean euskaraz bizi bazitekeen, ez zen beharrezkoa edozein gairen inguruan euskaraz aritzea, lagunartekoa aski baitzen haientzat. Belaunaldi berrientzat, ordea, hori ulertezina zen, euskarari beharrezko balioa eta prestigioa ematea ezinbestekotzat jotzen baitzuten eta, horretarako, edozein gai euskaraz lantzeko gaitasuna garatzea derrigorrezko urratsa zela zeritzoten.

Esan bezala, eztabaida horietan, belaunaldien arteko talka argia izan zen. Industrializazioaren eragina nabarmentzen ari zen eta honek gizartearen alor guztietan ekarri zituen aldaketak: Francoren erregimenaren aurkako indarra nagusitzen ari zen, gerra bizi izan ez zuen belaunaldi gaztea lanerako prestu azaldu zen, euskara hirietan hitz egiten hasi zen... Horrez gain, hizkuntza herri kontzientzia pizteko giltzarri ikusi zuen hainbatek eta honek bultzada handia eman zion euskalgintzari.

Hizkuntza eta kulturaren arloan haize berriak garaiko egoera itxi eta iluna egurasten hasi ziren: ikastolak, helduentzat gau-eskolak eta alfabetatze-ikastaroak, *Gaur* eta *Ez dok amairu* bezalako artistez osatutako taldeak eta idazle zein antzerkigile ugari agertu ziren. Finean, ideia bat nagusitu zen: herriari nortasuna hizkuntzak ematen dio eta, beraz, herria biziberritzeko hizkuntza biziberritu beharra dago; ondorioz, oraintxe da unea eredu estandarra bultzatzeko (Zuazo, 2005, 149-152).

*Jakin* aldizkariko 31-32 zenbakietan (1968), aurretiaz irakurleei bideratutako hainbat galderaren erantzunak argitaratu ziren. Erantzun hauetariko batzuetan, aurretiaz aipatu ditugun arrazoi eta baieztapen ugari topa daitezke:

- Lafitte (ik. Zuzendaritza 1968: 2):  
Batasuna lort ahal dagineza, bizi berri bat eman lezokela eskuarari, idazlek irakurle gehiago izanez eta diru gutiagoren gostuz eskuarazko literatura hedatuz.
- Lekuona (ik. Zuzendaritza 1968: 2-3):  
Eginkizun hau denpora pasatzeko joko ez dalako, gure herriaren etorkizunerako garrantzarik handieneko arazoa baizik.
- Azurmendi (ik. Zuzendaritza 1968: 4):  
Herri batek hizkuntza batasuna behar duela deritzaiodalako, kultura batasunik lortzekotan behintzat.
- Kalzada (ik. Zuzendaritza 1968: 4):  
Izkuntzaren batasunagaz batera, Euskalerriko erdeldun guztiak euskaldun bear dira; euskera ikasi bear dabe. Bestela, erdeldunak luzarora Euskalerrinari uko egingo dautze eta beste erri bat biurtuko dira. Erri txikia izan ta gaiñera bananduta bagagoz, alkar-aitzen ez bagara, ezer ez gara desarrollatuko, ta indar asko alperrik galduko doguz.
- Sarasola (ik. Zuzendaritza 1968: 5):  
Ezin daitekkelako pentsatu ere egin, euskara euskalkietan sakabanaturiko diraueno, gure hizkuntza kultura-lan bat egiteko eta euskaldunak euskaldun bezala heitzeko gai danik. [...] Eta praktikari behatuz, erraz konturatu diteke nor-nahi heriotzara doala zuzenean gurearen egoeran arkitzen dan hizkuntza bat.
- Villasante (ik. Zuzendaritza 1968: 5):  
Batasuna lortu gabeko izkuntza, beti motx, lotsagarri eta prestigio gabe gelditzen da. Eta ala gelditzen da, gaiñera, ez kanpokoan aurrean bakarrik, erritarren artean ere bai. Bateratua ez dagoen izkuntza, nekez sar diteke eskolan eta nekez irakats diteke.

Ikus daitekeen bezala, egoerak zirt ala zart egitea eskatzen zuen; euskararen etorkizuna ilun sentitzen zen eta, beraz, egin beharrekoak egitea tokatzen zen. Euskara orotariko gaiak lantzeko prest izan beharra zegoen, nolabaiteko prestigioa eskuratu nahi bazuen behintzat eta, horretarako, euskara estandarra sortzea ezinbestekoa izango zen. Jarraian, prozesu horren norabide eta helburuak zein ziren ezagutuko ditugu.

### **3. Norabidea**

Baina zertarako eta zergatik halako beharra? Zertarako murgildu halako gai gatazkatsuetan? Zertarako indartu euskara? Garaiko egoeran kokatu beharra dago, galdera horien erantzunak topatu nahi izatekotan, garaiko egoera linguistikoa nolakoa zen jakin gabe nekez ulertuko baita eztabaida horien funtsa.

Beraz, atal honetan garaiko pentsamendua nolakoa zen ikusiko dugu, estandarizazioaren inguruan aritutakoek zein helburu eta norabide aurreikusten zituzten aztertuz. Horretarako, lehen-lehenik hizkuntzak bizirik irautearen inguruan Juan Azurmendik egindako hausnarketa landuko dugu; jarraian, kultur hizkuntzaren beharraz jardungo dugu; eta azkenik, literatur eredu bakarraren beharra eta berau sortzearen abantailak zein diren ezagutuko dugu.

Eman beharreko lehen urratsa gizartea estandarren premiaz jabetzea zen. Izan ere, gizarteak arauok onartzeko, haiek sortzearen zergatiak eta arrazoiak azaltzea ere ezinbestekoa izango zen. Bestela, azalpenik gabeko kontua izanik, jendeak garrantzirik eman ez eta berehala alboratuko zituen.

Egoera hori saihestearren, Mendigurenek (ik. Zuzendaritza 1968: 10) horretarako kanpaina gogor bat egitea proposatu zuen, hala, beharrezko giroa sortzeko eta gizartean zeuden aurreiritzi eta beldurrei aurre egiteko. Izan ere, batasunak zuen “premia gorria” jende guztiari argi adieraztea jotzen zuen lehentasunezko.

### **3.1 Hizkuntzak bizirik irautearen beharraren zergatiak**

Hizkuntzak biziberritzearen aldeko argudiaketa bikaina eskaini zuen Juan Azurmendik (1959) *Jakinen* 9. alean. Artikulu horretan, linguistikaren alorretik begiratzearen beharraz dihardu Azurmendik. Hala, hizkuntz aniztasunaren inguruan jarduten du autoreak, hizkuntza txiki eta ezberdinek mundua aberasten dutela aldarrikatuz. Beraz, etorkizunerako mundu osoan hizkuntza bakarra nahi dutenek gizarteari sekulako gaitza opa diotela salatzen du, hizkuntza txikiak desagertuko balira, mundua pobretu egingo litzatekeelako. Amaitzeko, berak nahi lukeena hauxe dela zehazten du: herri txikien hizkuntzek bizirik irautearen beharraren aldarria gizartean zabaltzea.

### **3.2 Kultur hizkuntzaren beharra**

1960ko hamarkadaren hasieran, euskarak alor ezberdinetarako erabilgarri izan behar zuelako aldarria zabaldu zen. Izan ere, gizartea erabateko eraldaketa sakonetan murgildurik zegoen: ordura arte, nagusiki nekazaria izan zen gizartea industrializatzen ari zen eta euskarak ere baserri girotik ateratzeko beharra zuen, bizirik irautekotan.

Belaunaldi berri hori, euskara kultur hizkuntza bilakatzeaz ari zenean, gizarteko edozein arlotarako erabilgarri izateaz ari zen. Ikasgai oro, Fisika, Matematika eta abarrak ere euskaraz ikasteko aukeraz, hain zuzen. Finean, hizkuntza normalizatuz, euskararen egoera diglosikoarekin amaitzeko asmo irmoa zuten eta, horretarako, euskara kultur hizkuntza bilakatu beharra zegoen. Honatx, Joseba Intxaustik *Jakin* aldizkariko 9. alean (1959a) esandakoak, gure ustez interesgarri oso:

Euskera kulturaz bakarrik salba dezakegu, ez da beste biderik. Ta kulturak zer esan nahi du emen? Kultura, bizitza-praktikutasuna da. Literaturan bi talde bereiz ditzakegu: gizon konkretuari begiratzen dion literatura-salla, ta erritasuna sendotu naiez ari dana. Leenengo taldean jakintza-lburuak-eta dauzkagu: Deretxua, Mediziña, Filosofia...: auek praktiku izan nai dute, gizonaren bearrak aseez. Bigarreanean, berriz, literatura utsa sar dezakegu [...] Jakintza-literaturak eguneroko gizonaren bearrak osatu nahi ditu; literatura-sailla, ordea, edertasunari begira lilluratzen da. Ura praktikua da, au interesgabea. Eta ez dago zer esanik: gizonak, geroz eta geiago, Praktikutasuna nai

du leen. (1959a: 84)

Aurreraxeago Intxaustik zehazten du ez duela ezer herri-literaturaren aurka, ez baitio hizkuntzari kalte egiten; nahiz eta harekin bakarrik hizkuntzaren ibilbidea motza izango den. Hau da, herri-literaturak euskara apur batez iraunaraziko du, baina harekin bakarrik ez da salbatuko: "Kultura jori bat sortzen ez badugu, erri-literatura aberatsa izan arren, euskera il egingo zaigu" (1959a: 85).

Artikulu horretantxe aipatzen du kultur hizkuntzarik izan ezean, gizakia beti egongo dela behartuta gai horiek erdaraz jorratzera eta, ondorioz, egoera diglosikoak bere horretan iraungo duela. Intxaustiren hitzetan, kulturagabeko hizkuntzak hilobira kondenatuta daude, eta kultura duenak, berriz, izango du nahiko indar aurrera egiteko. Bide honetan, kultura egiteko argibide batzuk ematerakoan, honako iritzia plazaratzen du: kultur hizkuntza behar da, bai, baina ez edonolakoa, ezin du soilik hamarnaka lagunentzat erabilgarri izan behar; kultura egin beharra dago, baina jende askorentzat; irakurleak sortu beharra dago eta horretarako bidea argia da: askotariko gaiak eta euskara erraza.

Bestalde, azkenaldian, idazle zenbaitek euskara ulergaitzean dihardutela salatzen du eta euskarari mesede egin nahi bazaio, hizkera horiek baztertu eta betiko ixiltzea hobe litzatekeela aldarrikatzen du. Horrez gain, euskara salbatzeko bide bakarra euskara ulergarria eta erraza erabiltzea dela azpimarratzen du.

Artikulua amaitzeko, halakoxe esaldi bat erabiltzen du artikuluan zehar aurretiaz esanikoa esaldi bakar batean borobilduz: "Laburturik: kultura bear dugu; ontarako irakurle ugari bear ditugu, ta ez dago irakurleak ugaritzerik, zenbait idazleen euskara bidez" (1959a: 88).

### ***3.3 Literatur eredu bakarra***

Eredu komun horren beharra gero eta zabalduagoa zegoen gazteen artean. Gai berriak eta akademikoagoak landu nahi zituzten, baina bide horretan ez zuten

gaztelerara jo nahi. Esaterako, Gerediaga Elkartek Ermuan antolaturiko batzarrean gai horren inguruan jardun zuten hainbat idazlek, eta ondorioak zabaltzeko artikuluan halaxe mintzatzen da Gerediaga Elkartea:

Gure izkuntzak, gaurko munduan, eskolarik gabe, Unibersidaderik gabe, agintarien jabetasunik gabe, Estadurik gabe, ez radio, ez egunkari, ez zinema, ez telebista... ta beste izkuntza indartsuagoak azpijanean ari dirala, ez du bizitza luzerik (Gerediaga Alkartea 1968: 15).

Baina nola egin bide hori? Gerediaga Elkartekoen hitzetan (1968: 15-16), gainontzeko herri guztiek egin izan duten bezala, tradiziozko literatura eta herri hizkuntza biziaren arteko nahasketa eginez. Gainera, estandarizazioak euskalkiak desagerraraziko dituela esaten dutenei adierazten die euskara literarioa izango dela elkarri hobeto ulertzeko tresna eta guztiok elkartuko gaituen zubia.

Bestalde, 1968ko *Jakineko* 31. ale horretan bertan Aingeru Irigarayk ere gai beraren inguruan jardun zuen. Euskara literarioa osatzeko lehen pausoa, euskalki oro ezagutzea dela diosku eta, horretarako, joan diren mendeetako autoreak aztertu beharko direla aldarrikatzen du. Izan ere, Irigarayren arabera, euskalki guztietan bada nahikoa autore ezagun: Mogel eta Añibarro bizkaieran, Duvoisin eta Haraneder nafar-lapurteran, Oihenart eta Intxauspe zein pastoralak zubereran, Mendiburu eta Agirre giputzak... Izan ere, haren hitzetan (1968: 58-61), zenbat eta atzerago jo, orduan eta batuago topatuko dugu euskara eta horixe izango da batasuna eratzeko jarraitu beharreko bidea .

Artikulu horretan bertan aipatzen du batasuna idatzirako dela, eztabaidok euskara idatziaren ingurukoak direla eta, beraz, inork ez duela halakoa euskalkien aurkako borrokatzat hartu behar. Ildo honetantxe, ale bereko hurrengo orrialdeetan Piarres Lafittek ere ideia berean sakontzen du: “horrek ez du erran nahi, hil egin behar ditugula gure herri-euskalkiak, ez batere: mintza ditela, ontsa mintza ditela, eta ahal dezala mintzatzen garenean, bainan gero, izkiratzen dugunean, kasu eginez” (1968: 64).

Azkenik, trantsizioa bitartean, aldizkariak norbere euskalkian egitea ontzat ikusten du, prozesua motela izango baita, baina astero artikulua bat bederen, lehena edota serioena, hizkuntza bateratuan egin beharko litzatekeela proposatzen du, hala ere berrietara ohituz joateko.

Ikus daitekeen bezala, eztabaidak konplexuak eta ugariak izan ziren, baina esan daiteke kultur hizkuntzaren beharra, orokorrean behintzat, ezinbestekotzat jotzeaz gain, egin beharreko prozesu gisa ere ulertzen zela.

Prozesua, beraz, konplexua izango zela azpimarratu beharra dago eta bere konplexutasunean oztopo ugari izango zituen bidean zehar.

## **4-Oztopoak**

Atal honetan zehar euskararen estandarizazio prozesuaren hasierako urteetan izan ziren hiru oztopo aztertuko ditugu, hauek baitira aztertutako corpusean azaldu zaizkigunak: lehenik, euskalkien eztabaida; bigarrenik, euskal hitzen inguruan sortutakoak eta, azkenik, *h* hizkiaren inguruan sorturikoak. Aipatu beharra dago hamarkada hartan izan ziren eztabaidetatik *Jakin* aldizkarian jasota daudenak soilik landu ditugula, horixe baita landu dugun corpusa.

### **4.1 Euskalkien eztabaida**

1960an *Jakinek* gehigarri berezi bat atera zuen otsailean. Bertan, “Batasun billa” izeneko artikulua bat aurki dezakegu, *Jakineko* lantaldearen eskutik egindako batasunaren aldeko aldarri argi bezain irmoa, zalantzarik gabe. Hauexek euren hitzak: “Danok batean egin behar dugu lan, bai praille eta apaizgaiak, bai gizartean bizi diran eskoladunak. Batasunean eta elkartasunean hasi eta egiten dira gauzak” (Zuzendaritza 1960a). Batasunaren beharraz diharduenean, kasu honetan, hiztunen batasunaz ari da, guztiok elkarturik egin beharreko lana baita halakoa, eta ez norberak bereari heldu eta

burugogorkeriatan ibiltzekoa. Denok utzi beharko zuten eurenetik zerbait, eta besterenetik hartu, hauxe baita batasuna, eta horregatik artikuluari amaiera emateko hitzok erabili zituzten: “Irispiderik ederrena litzake denok batean lan egitea. Gauza aundi guztien legea: batasuna” (Zuzendaritza 1960a).

Urtebete lehenago, 1959an kaleratu zen 11. alean, Joseba Intxaustik 1959ko abenduan Bilbon Euskaltzaindiak eginiko batzarraren ingurukoak dakartza aldizkariko bere artikulura. Batzar horren berri ematerakoan, hainbat kontu interesgarri izan baziren ere, Villasanteren eta Txillardegiren lanak hartzen ditu aipagai.

Intxausti bat dator Txillardegik “Batasunaren bidea” izeneko lanean aipaturiko hainbat proposamenekin. Batasunerako irizpide zuzen bakarra usadioa dela esaten du eta oinarri gisa batasunerako erabiliko den euskalki hautatzerakoan jatorrena eta praktikoena aukeratu behar dela argitzen du. Jatorrena xuberotarra izanik ere, praktikotasunari begiratuta ez dela egokiena dio eta horregatik Oiartzun-Sara-Elizondo ingurukoa proposatzen du Mendiburu eta Duvoisin eredu hartuta (1959b: 89).

Aurrerago ikusi zen bezala, azkenean, arrazoi lingusitikoak eta soziologikoak medio, erdialdeko euskalki horixe izan zen eredu estandarretako oinarria eta, beraz, 1959an, Arantzazuko batzarra baino ia 10 urte lehenago, Txillardegik proposatutakoa egokia zela ikusi ahal izango zen.

Euskalkien eztabaidaz ari garela, ezin aipatu gabe utzi Krutwigen lapurtera klasikoaren aldeko proposamena eta, berau azaltzeko, 1968ko *Jakinen* 31. alera jo beharra dago. Bertan, J.A. Letamendiak batasunari buruz historian zehar egon diren iritzi ezberdinen arteko bilketa moduko bat egin zuen. Beste hainbaten iritziekin batera, zati txiki bat eskaintzen dio Krutwigen lapurtera zaharraren proposamenari. Krutwigen ustetan, ez da zentzuzkoa beste eredu bat eraikitzen hastea, iadanik eredia osatuta dagoenean. Haren hitzetan, egin beharrekoa ez zen sortzea, nafar-lapurtera hura ezagutu eta ikastea baizik, horixe zen bidea. Horregatik, batasunaren iturburuan, nafar-lapurtera kokatu zuen eta, egia esate aldera, proposamenak nahiko indar hartu zuen,



Bizkaian batez ere (Letamendia, 1968: 25).

Hala ere, gerora, eredu hori baztertu eta, esan bezala, erdialdeko euskaran oinarrituko zen Euskara Batua.

#### ***4.2 Zeintzuk dira benetako euskal hitzak?***

Euskalkien inguruko eztabaida nahikoa ez, eta kalapita benetan gogorrak izan ziren euskal hitzen inguruan. Zeintzuk dira benetako euskal hitzak? Nola idatzi behar dira? Nola mantendu euskararen jatorria maileguekin batera? Lerrootan gai honen inguruan jasotako iritziak bildu ditugu.

Euskarak garai berrietara egokitu beharra zuela argi geratzen ari zen garai haietan, baina, jakina, mundu berri eta hiritartu horretara jauzi egiteak eta kultur gaiak euskaraz lantzeak eztabaida berri bat sortu zuen: Nola lortu premiazko ziren hitz berri haiek? Erdararik hartuz ala euskarazkoak sortuz?

Jarrera eta iritzi ezberdinak sortu ziren eta honek ere ekarri zuen zer eztabaidatua: garbizaletasuna, mordoilokeriak, maileguak... Kontuan hartu behar dugu eredu sabindarrak bere indarra zuela oraindik, eta idazle asko eta asko edozein kanpo-eraginetatik euskara “salbatzeko” edozer egiteko prest zeudela, hizkuntzak bere “garbitasuna” eta “purutasuna” mantentzen zituzten.

Arestian aipaturiko Joseba Intxaustiren artikuluan (1959b), Villasanteren euskara jatorraren aldeko aldarria ekartzen da, baina gehiegizko jarrerak baztertu beharrez ere jarduten du; izan ere, Intxaustiren ustean, jatorrak ez du soilik baserri mundua esan nahi, askotan. Askotan kaletarren hizkera baztertzen baita “kaletarra” delako, bestelako argudiorik gabe. Intxaustiren ustez, kaleko hizkera horiek beharbada ez dira hain garbiak izango, baina biziak dira eta une hartan euskarak behar zuena horixe zela gogorarazten du, bizitasuna (1959b: 87).

Bestalde, artikulua horretan, garbizaleen jarrera ere salatzen du; izan ere, askotan, hitz

bakarra erabili beharrean, hitz hori (edota delako mailegu hori) saihestearren izugarritzko jira-birak egiten baitituzte, esaldi luzeak gora eta behera erabiliz eta, horrela, hizkuntza are konplexuagoa bilakatuz eta ulertzeko zailtasunak sortuz. Hala, Villasanteren iritzia ekartzen digu Intxaustik: “Erderaren bidez sartzen zaizkigun itzak artuaz ta asimilatuaz (bearreko diranean, jakina) ez dut uste euskerari kalte egiten zaioni... Bear lirakenak artu, baina gauden euskaldun” (Villasante 1959; *apud* Intxausti 1959b: 87).

Intxaustiren artikuluan, Txillardegik gai horren inguruan esanak ere ekartzen dizkigu: ideia zaharrak emateko ez zegoen ezer asmatu beharrik, idazle zaharregandik ikasi baizik. Hala ere, euskarak hitzik ez izatekotan, ideia berrietarako hiru bide proposatzen ditu Txillardegik: lehena, hitz zaharrei balio berriak ematea; bigarrena, euskal hitz eta atzizkien bidez hitz berriak moldatzea eta, azkenik, erdaretatik hartzea. Hala ere, hitz horiek “euskal senaz” jantzi beharko liratekeela dio, hau da, euskararen lege fonetiko eta arauak aplikatu (1959b: 90).

Intxaustik irizpide horien inguruan zalantza duela aitortzen digu amaiera aldera, Txillardegik batasunaren bidean euskara jatorraren eta erabiliaren aldeko hautua egiten badu, ez al da azken puntu hori kontraesankorra? Jatortasunak onar lezake erdarako hitzik? Ez al lirateke baztertu behar? Txillardegiri puntu horretan sakon dezan eskatzen dio, aurretiaz bere lanagatik eskerrak emanez (1959b: 91).

Bestalde, 1958ko abenduan Euskaltzaindiak Bilbon egindako jardunaldietan Mitxelenak euskal hitzen gai hori landu zuen eta, ondoren, Kamiñazpik ere (1960) bere iritzia emateko gogoia sentitu zuen horren inguruan.

Horretaz aritu zen *Jakinen* 13. alean, hain zuzen. Hala, beste hizkuntzetatik hitzak hartzea defendatzen du, munduan ez baitago hizkuntza zeharo garbirik eta, gainera, euskarak ere antzinatik beste hizkuntzetatik hitzak hartu izan dituela gogorarazten du. Horregatik, zorakeria iruditzen zaio kanpoko hitz guztiak euskaratik kanporatu nahi izatea (1960:62).

Bestalde, belaunadien arteko transmisioa ere aztertzen du. Zaharrek erabiltzen dituzten hitz asko gazteago direnek ulertu arren, iada ez dituzte erabiltzen eta, ondorioz, haurrek ulertu ere ez dituzte egiten. Horregatik, hizkuntzaren galera abiada bizian gauzatzen da. Gainera, orduko haurrek, euren kultura erdaraz bizi dutenez, eta lehendik euskaldunek erabiltzen ez zituzten hitz berrien premia handia dutenez, gaztelerara jotzen dute, besterik ezean (1960:66). Horren arrazoia eskola euskaldunik ez izatean kokatzen du eta, eskolarik ez badago, euskara galdua dela salatzen du Kamiñazpik (1960: 67).

Neologismoen alorrean, euskarak ahal den guztia hitz zaharretatik hartu behar duela dio, baina ez badu hitz zaharrik, berria asmatzeari ondo deritzo. Haren ustez, ez baikara euskaldunok hitz berriak asmatzen ditugun bakarrak. Hala ere, ez dugu dena asmatu behar eta herri guztiek erabiltzen dituzten nazioarteko hitzak geuk ere erabili behar genituzkeela esaten du (1960: 66). Dena den, neologismo egokiak zeintzuk diren Euskaltzaindiak erabaki behar lukeela aitortzen du (1960: 67).

Baina euskal hitzen inguruko eztabaida ez zen bertan amaitu; oraindik ere soka luzea ekarriko zuen. Horren adibide, 1961eko *Jakineko* 15. alean Aurraitzek plazaratutako iritzia. Aurraitzek salatzen du idazle ugari erdal hitzak gogotik ari direla erabiltzen, euskara galbidera bidaliz. Idazle horiei proposatzen die euren idazgintza baztertu eta erdaraz ez dakiten baserritarrengana joateko hamar urtez, euskaldunek egiten duten benetako euskara ikasteko eta daukaten erdal-kutsua desagerrarazteko (1961: 73) . Izan ere, *pietate*, *enpiriko* edo *astrato* bezalako erdarazko hitzak gure hizkuntza zikintzen eta hondatzen ari direla gogorarazten du. Haren ustean, garbizaleegia edota mordoiloizalea izatea ona ez bada ere, onena bien artean geratzea da, betiere garbizaletasunetik gertuago, hau herritik gertuago kokatzen baita. Bere hitz egiteko erak barruan daraman hasarrea argitzen du:

Zer dala-ta, ze zentzuaz bastertu, ba, adiskide, geure errietan ikasi genduan joskera garbi ta jatorra, benetako euskaldun zintzoek ulertu ezin daikien beste lorrin motz,

(itxusi), orren ordeaz, antxiña txarto idatzitako idaztien batzuetan aurkitu dozuela-ta? Nora eroan gozuez? (Aurraitz, 1961: 75).

Halako jarreraren aurrean nazkatuta, Salvador Garmendiak “Euskararen Batasuna” izeneko artikulua argitaratu zuen *Jakineko* 31. alean (1968):

Gauza agiria da, euskal hiztegiaren aurkitzen dan hitzetatik asko eta asko, millaka beharbada, latinetik eta erromantzetik eldu zaigula. Hitz horiek, nahiz eta latinetik edo edonundik datozela, euskal hitz dira, euskal literaturan maiz maiz erabili diralako, euskaldun guztiak erabili dituztelako, menderen mendetan erabiliaz gozoz eta urriñez bete zazikigulako. “Hitz hau latinetik eldu da; ken dezadan eta kito!” Gure zozokeriak ez bide du nehurririk! Hola has bagintez, egia esan, hitz gutxi geldituko da gure Hiztegiaren! (Garmendia, 1968: 32-33).

Ale horretan bertan, Piarres Lafittek gerora ezagun egingo zen metafora topa daiteke. Maionesa ongi egiteko pausuak zeintzuk diren azaltzen du eta euskarari beharrezkoak zaizkion hitz berriak modu berean txertatu behar direla argitzen du, alegia, emeki-emeki sarraraziz:

Konparazione bat egingen dut: maionesa ba dakizue nola egiten dan: ezartzen da ontzi batean, ta gatza ta piper beltza, ta horiek oro, ta, azkenean, ezartzen da arrautza bat ere, gorringoa; ta gero –horiek oro– behar dira jo eta jo, bainan gero olioaren ezarri behar da, bere olioaren tantaka ixurtzen da; sobera ezartzen baldin baduzu, huts egiten duzu zure maionesa. Eta, ene ustez, behar dugu holako gauza bat egin eskuarekin, behar dugu denek maionesa errusitu, hortan da guzia (Lafitte, 1968:65).

Gainera, eztabaida gogorrenak iristeko zeuden, ia estandarizazioaren prozesua bera ere blokeatzeko gai izan zena: *h* hizkia.

#### **4.3 *H* hizkiaren eztabaida**

Esan daiteke *h* hizkiaren inguruko kalapitak euskararen batasunaren eztabaidaren ikur bihurtu zirela. Hizki huts horren atzean hainbat ideia eta eredu kontrajartzen ziren

eta aferak berebiziko eztabaidak sortu zituen.

Aurretiaz aipatutako belaunaldien arteko talka hura inon argi islatu bazen, eztabaida honetan izan zen. Euskal Herri osoari begirako ikuspegia beharrezkoa zela eta, Iparraldekoak estandarizaziora hurbiltzeko eta proiektua ere euren zela sentiarazteko bultzatzen zuten batzuek *h* hizkia; besteek, aldiz, frantseskeriatzat eta ezezaguntzat hartzen zuten.

*Jakin* aldizkaria, hasieratik, *h* hizkiaren alde lerratu zen eta honatx Koldo Zuazoren *Euskara Batua ezina ekinez egina* liburuan (2005) Nemesio Etxanizek Santi Onaindiari bidaliriko gutunean esandakoak jasota:

Aiek beren *Jakin* aldizkarian eskuak jarein dituzte nai dutena esateko. Guk *h*-ren kontra gogor jokatzeko, or daukagu Olerti [...] Guziok *Jakin*-en erronkari erantzun bear diogu, ta Euskaltzaindiaren aolku orri ez entzun egin. Ia, ba, atzartzen dituzun erdi-lotan dauden *h*-ren kontrako guztiak. Gazteok beren asmoak aurrera eraman nai dituzte, azkenean urtero letra bat sartu nai digute. Poliki-poliki *c*, *ch* eta azkenean *v* sartu naiko digute (in Onaindia 1974 *apud* Zuazo 2005: 161).

*H* hizkiaren aurka gogor lerratu zen beste idazle bat Kamiñazpi ondarrutarra izan zen. *Jakineko* 19. alean, 1965ean kaleraturiko artikuluan gogor mintzatzen da letra horren aurka, sekula erabili ez dutenentzat arrotz dela eta, gainera, hots berezirik ere ez daukan hizkia izanik, ez baitu ulertzen zertarako erabili. Gainera, haren ustez, batasunaren bidean bi aukera daude: erabiltzea ala ez erabiltzea. Beste erabaki batzuk erraztasunari begira hartu direla esaten du eta, kasu honetan, erraztasunaren aurkako erabakia dela dio. Azkenik, artikuluari amaiera emateko, bizkaieraz *h* hori erabiltzea sudur puntan eraztun bat erabiltzea bezain “itxura bakoa” dela salatzen du (1965:14-16).

Azken aipu horrek izan zuen erantzunik *Jakineko* hurrengo alean bertan, 1965eko 20. alean, Jose Azurmendik bere iritzia plazaratu baitzuen bertan *h* hizkiari dagokionez. Bertan, hainbat kontu aipatzen ditu: lehenik, *Jakinen* erabakiarekin ados dagoen arren,

salatzen du irakurleari inolako arrazoi edota argudiorik eman gabe hartu dela *h* erabiltzen hasteko erabakia. Horregatik, erabakia babesten duen arren, irakurleak argitasun gehiago behar duela esaten du (1965: 25).

Bestalde, aipagarria da geroago aipatuko dugun Baionako Biltzarrean, *h* hizkiaren txertaketa pausoka-pausoka egiteko proposamena egin zela: lehen epean, bokal artekoak eta hitzak bereizteko zirenak idazteko erabakia hartu zen, hitz hasierakoak eta bokal ezberdinen artekoak geroagorako utziz.

Azurmendiren artikuluan ikus dezakegu *Jakinek* epe horiei izkin egin eta hasiera-hasieratik *h* guztiak erabiltzeko aukera hautatu zuela, irakurlea ahalik eta azkarren ohitzen joan zedin. Azurmendik erabaki hori ere ontzat ematen du, epeka beharrean, hasieratik *h* guztiak erabiltzea hobetsiz (1965: 26). Gainera, *h* hizkiaren aldeko argudio nagusia batasuna izanik, eta batasuna beharrezkotzat jotzen bada, erabiltzea ezinbestekotzat jotzen du.

Esan bezala, artikulua amaieran, Kamiñazpiri erantzuten dio Azurmendik, aurreko zenbakian argitaratutako artikuluari ihardetsiz. Hala, erabakiak errespetatzen ez badira, batasunera iristea ezinezkoa izango dela adierazten du. Horrez gain, Iparraldeko *h*-a ere baztertzea gehiegi eskatzea dela deritzo, haiek hainbeste gauza utzi eta gero, Hegoaldekoek ere esfortzu bat egin behar dutelakoan. Gainera, erraztasunari dagokionez, “erraza izatea ez da gauza bakarra, ez guztia, ez erremedioa” (1965: 27). Azkenik, sudur puntako eraztunaren inguruan, hitz zorrotzez erantzuten dio:

Baña nik neuk, sudur puntan, zuk diozun eraztuna ezezik kanpaia ere eramango nukeala uste dut, hiltzeko edo eraztun hori eramateko aukeran aurkituko banintza. Eta, diotenez hau ei da euskeraren goritxarra. (Azurmendi, 1965: 27)

Ikus daitekeen bezala, egoera benetan oso tenkatuta zegoen. Norbera bereari eutsita zebilen eta bazirudien, bat-batean, egoerak gainezka egingo zuela. Batzuek erabaki horiei muzin egin eta euren ustez egokiak zirenak erabiltzeari eutsi ziotela ikusi ahal

izan dugu. Hala, norbera bere gustura idazten hasteko arrisku larria sortzen ari zela ikusita, *Jakin* 31.-32. zenbakietan, 1968koan, honako gertaeren inguruan halako iritziak aurkitu ditugu:

- Kalzada (ik. Zuzendaritza 1968: 11):  
Anarkista, antisozial, Euskalerrriaren arerio eta ondatzaille. Euskalerrriak daukon utsik nagusia eta arrik txarrenaren jabe dira pertsona orreik.
- Iraola (ik. Zuzendaritza 1968:11):  
Asesinoak. Neretzat etzeok beste itz aproposik.
- Azurmendi (ik. Zuzendaritza 1968:12):  
Bakoitzak nahi duena egite hori euskaldunon espezialidadea iruditzen zait. Espezialidade gehienetan txar bat, orain arteko jokabideak aztertu ezker. Erabakiok zearo arbuiatzen dituztenak mereziko didaten epaia: bakoitzak bere kontzientzia! Baiñan denok herri bat: lastima berriz ere jeinu geiegi dauzkagula.

Ale horretan bertan, 1968ko 31-32 zenbakietan, Imanol Laspiurrek euskal-joskeraren inguruan idatziriko artikulua amaieran, *h* hizkiari erreferentzia eginez, honakoa diosku:

Asko ikasi bearra dugu ta, baita ere, buru makurtu bearra sendo. H[a]txea dalako orretaz bakarrik naikoa burrukaldi izango da baiña burruka zintzo baten ondoren benetako arrazoiak ikusi ditzagun eta bat etorri gaitezen, bestela, alkarri ez-ezik, euskerari berari adar-jotzen ari izango gera. Ez dut iñoiz hatzez idatzi. Ala ere, Euskaltzaindia'k nai ta nai-ez artu bear dugula esaten digunean, ni hatzez idazten asiko naiz eta ez dut utziko (Laspiur, 1968: 57).

Horrela, norbere iritziaren gainetik, Euskaltzaindiaren iritzia errespetatu beharra dagoela adierazi nahi du. Euskaltzaindia zen erakunde nagusia eta bere iritziak eta gomendioak jarraitu beharrekoak ziren, hizkuntzaren etorkizuna baitzegoen jokoan. Hala ere, Euskaltzaindiak berak bakarrik ezin zion ekin prozesuari, eta nolako giroa

zegoen ikusita, Euskaltzaindiak babesa eta bultzada beharko zuelako irakurketa egin zuten hainbatek.

Hurrengo atalean ikusiko dugunez, ez ziren gutxi izan prozesuari ekitea bultzatzeko (bai babesa emateko helburuz eta baita nolabaiteko presioa eragiteko) sortutako eragile edota ekimen ezberdinak. Batzuen ustez, Euskaltzaindia motelegi zebilelako, eta besteen ustean babesa eskaini behar zelako.

Gauzak honela, Euskaltzaindiak prozesuari ekiteko bidelagun ugari izan zuela esan dezakegu.

## **5-Laguntzak**

Lanaren atal honetan, prozesuak izaniko bultzatzaileak eta laguntzaileak zeintzuk izan ziren eta zer egin zuten laburbilduko dugu. Horretarako, hainbat elkarte eta gertakizun ezagutu ahal izango ditugu. Hasteko, Euskaltzaindiaren laguntzaileak elkarteak; ondoren, 1964ko Baionako Biltzarrera joko dugu, bertan onartu baitziren lehen arauetako batzuk, geroagoko estandarraren lehen oinarria izango zirenak. Jarraian, Ermu'ko idazleen jardunaldietan jazotakoak ezagutuko ditugu eta, azkenik, estandarizazioaren hasiera ofizialtzat hartua izan den Arantzazuko Biltzarra.

### ***5.1 Euskaltzaindiaren laguntzaileak***

Hasiera-hasieratik Euskaltzaindiaren laguntzaileak elkartearen helburua argia izan zen: Euskaltzaindia babestu eta animatu nahi zuen. 1960ko *Jakinen* ale gehigarrian, urte bereko urtarrilaren 11n Donostian eginiko batzarraren ingurukoak topa daitezke. Aipatu gehigarrian, azaltzen da batzorde batzuk antolatu zirela zenbait irizpide finkatzeko asmoz; antzerkian, eskolan eta hizkuntzaren zabalkundearen.

Gainera, gehigarri berean, berriz ere, *Jakinek* bere jarrera zein den argi adierazten du:



Ez gaitzke euskaldunak Euskaltzaindiak egingo digunaren zai bapo egon. Berak bideak erakutsiko dizkigu, baiña lana geuk egin behar dugu. *Jakin* bezatea  
–Euskaltzaindiaren laguntzailleak–: Yakin'ez baliatu nai badezate, ateak zabalik duzkaguna (Zuzendaritza 1960b).

Halako ekarpen eta gertaera baikorrak garaiko etsipenean esperantza iturri bilakatu ziren. Oraindik ere hizkuntza biziberritzeko aukera erreala ziurtatzen zen, oraingoan ere gazteriak lan egiteko gogoia zuela erakutsiz. Aipaturiko artikulua amaierako lerroak horren adierazgarri: “Gora biotzak, jaso begiak ibar illunetatik egunsentiko dizdira gorritz pizten ari zaizkigun gaillurretara. Aaz ditzagun egun malkartsuak, argia batororkigu-ta” (Zuzendaritza 1960b).

## **5.2 Baionako Biltzarra**

1963an Euskal Idazkaritza izeneko elkarteak sortu zen Baionan. Euskaltzaindiak prozesuari behar bezain irimo heltzen ez ziola eta zain egotea denbora galtzea zelako usteaz, “Hizkuntza saila” deituriko alorrekoek batasuna markatu zuten lehentasun gisara.

Horretarako, herrialde guztietako euskalzale jakitunak eta alor politiko ezberdinetako pertsonak elkartzen hasi ziren, astean behin, asteazkeno-asteazkeno: Jesus Mari Bilbao, Jean-Louis Davant, Roger Iriart, Eneko Irigarai, Telesforo Monzon, Jesus Solaun eta Txillardegia elkartzen ziren; EAJ, ETA, Enbata eta Elizako ordezkariak zeuden bertan. Nolabait, garaiko eztabaida politikoak hain sakonak ziren sasoian batasuna guztien eginbeharra zela adierazi nahirik, eta esparru ezberdinetako jendeak prozesu hori babesten zuela adierazteko asmoz sortu zen halako talde ezberdin eta anitza (Zuazo 2005: 154).

Zortzi hilabetez lanean buru-belarri aritu ostean, 1964ko abuztuan biltzarra egin zuten Baionan, eta bertan hilabete horietan osatutako zazpi orrialdeko txostena aurkeztu zen. Jende ugari parte hartu zuen batzarrean eta ez ziren gutxi izan Euskal Herri osotik

bertaratutako irakasle, idazle edota kazetariak. Hiru zati zituen aurkezturiko txostenak: ortografia, deklinabidea eta aditza. Bertan, arauak era zehatz eta argian adierazten ziren, erraz uler zitezzen.

*Jakin* aldizkariak, 1965eko 18. alean, biltzarreko txosten osoa argitaratu zuen, adierazpen txiki batez lagunduta.

Aipatu adierazpenean, *Jakin* aldizkariak Baionako Euskal Idazkaritzaren lana goratu eta euskal literaturaren batasunerako urratsa dela aitortzen du. Hala, *Jakinek* erabaki horiek ontzat hartu eta bete egingo dituela adierazten du eta, bide batez, hurrengo zenbakitik aurrera, *Jakinen* lege horiek bete egingo direla aurreratu egiten du: nahi duenak nahi duen euskalki eta estilotan idatzi ahal izango du, baina iristen diren artikulua arau horietara egokitu egingo dira. Halaxe dio: “Beraz, *JAKIN*, geure aldizkarian, idazten duena obligatua dago lege honen betetzera” (1965: 20). Honenbestez, arau berri horiek errespetatu eta erabiltzeko erabakia errespetatze aldera, jasotako artikulua guztiak zuzendaritzak zuzenduak izango direla adierazten da.

Sarrera moduko adierazpen horren ostean, txosten osoa ikus daiteke, Baionako Biltzarreko erabaki guztiak jasotzen dituen, alegia. Honek guztiak ikustarazten du batasunaren beharra argia zela eta orduan hartzen ari ziren erabakiak bultzatzeko gogoaz bazegoela. Horrez gain, *Jakin* aldizkariako kideek euren eskuetan zegoena egiteko prestutasuna ere adierazi zuten behin baino gehiagotan prozesua bultzatu eta azkartzeko.

Funtsean, zera esan daiteke, estandarizazioaren aldekoak ez zeudela itxarotearen alde eta lanean hasi zirela ahalik eta modu azkarrenean eta eraginkorrean. Honek hainbat ondorio ateratzeko aukera ematen digu; batetik, Euskaltzaindia presionatu nahi zela prozesuari ekiteko baldintzak bazirela adieraziz eta, bestetik, jendearen gehiengo arauak ikasteko eta errespetatzeko prest zegoela frogatuz. Bestalde, batasunaren bidea hain luzea izanik, apurka joateko aukera ere indartu egiten da, lehenik, erabaki gutxi batzuk hartzea ebatzi baitzen, gainerakoak geroagorako utziz. Ezin zen dena egun

batetik bestera egin, eta are gutxiago gizarteak arau horiek ikastea nahi bazen, baina lanari ekin beharra zegoen.

J.A. Letamendiak lau urte igarota, 1968ko 31. alean, Baionako Biltzarra “oso urrats garrantzizko” gisara definitu zuen askok jarraitu baitzioten bide horri, batasunaren aldekoak ziren gazteek batez ere (1968: 27).

### ***5.3 Ermua'ko Idazleen Jardunaldiak (1968)***

Pixkanaka gauzatu beharreko urratsez urratseko estandarizazioaren bide luzean, beste pauso bat emateko erabakia hartu zen 1968ko abuztuan Ermuan. Euskal Herriko hainbat idazlek topaketa batzuk gauzatu zituzten Gipuzkoako eta Bizkaiko mugan dagoen herrian eta landuriko gaia literatur hizkuntzaren batasuna izan zen.

Bertan, hainbat erabaki hartu zituzten, hala nola idazleen elkarte bat sortzea, Euskaltzaindiari aditzaren inguruko batzorde baten sorrera eskatzea, Baionako biltzarrean *h* hizkiaren inguruan hartutako erabakiak ontzat hartu eta zabaltzea eta, azkenik, hezkuntzari begira ikastoletako andereño eta zuzendariei laguntza eskaintzea euskara literario bakarrari buruzko hitzaldiak eta ikastaroak eskainiz (Biltzarkideak 1968: 73-74).

Beraz, halako ekimentxo bat euskararen estandarizazio prozesuari beste bultzada bat emateko lagungarri izan zen, Euskaltzaindia are babestuago sentitu zedin eta urrian Arantzazun egin beharreko bileran erabaki ausartak har zitzan.

Honez guztiaz gain, *Jakin* aldizkariak publikoki hitzemande bat gauzatu zuen, Euskaltzaindiaren erabaki oro onartuko zituela esanez. Horrela, enegarren aldiz, *Jakinek* estandarizazioaren alde eta prozesu hura bultzatzeko bere eskuetan zegoena egiteko prestutasuna azaldu zuen.

Erabaki horren berri, 1968ko 31. alean eman zuen: Euskaltzaindiak hartuko zituen erabakiak errespetatuko zituela hitzeman zuen; beraz, hasieratik batasunaren alde

izaniko jarrera berretsi zuen. Gainera, batasunaren beharra hain argiki ikusteko zituzten bi arrazoiak ere gogorarazten ditu: lehenik, euskararen heriotza saihesteko hautatutako bidea delako eta, bigarrenik, euskara jakintza landuetarako ere erabili nahi bada, batasunik gabe ezinezko izango delako.

Horregatik, aldizkariaren zenbaki berean, honetan bertan “Deia” izeneko artikulua baten bidez, Ermuako Jardunaldien berri ematen dio irakurleari.

Gerediaga Elkartek (topaketen antolatzaileak) aitortzen du Euskaltzaindiak bakarrik egin ezin duen lana dela batasunarena; horregatik, Euskaltzaindiaz gain, euskal idazle guztien bilerak egiteko nahia plazaratzen da, batasunari buruz egin diren lanak aztertzeko, eztabaidatzeko eta, ahal bada, komunean zerbait osatzeko. Gerora, Gerediaga Elkartek Euskaltzaindiari emateko eta euskal idazleen iritzia kontutan har dezan batasuna eratzeko orduan (Gerediaga Alkartea 1968:15).

Hala, pixkanaka bada ere, apurka-apurka babes-sare gisakoa osatuz joan zen, bide batez Arantzazuko biltzarrerako beharrezkoa zen batasunaren aldeko giroa sortzea ahalbidetuz.

#### ***5.4 Arantzazuko Biltzarra***

Azkenik iritsi zen unea eta 1968an, Euskaltzaindiak 50 urte betetzen zituen horretantxe, Arantzazuko santutegian batzarra antolatu zuen urriaren 3an, 4an eta 5ean. Bertan, euskara batzen hasteko lehen erabaki xumeak hartu ziren eta “Arantzazuko txostena” deiturikoa aurkeztu zen. Ortografiaren, morfologiaren, deklinabidearen eta neologismoen inguruko erabakiak biltzen zituen txostena, hain zuzen.

Dialektoen eztabaidari dagokionez, erdialdeko euskara hautatu zen eredutzat. Erabaki horren aldeko pisuzko bi arrazoi nagusi aipatu ziren: ulerterrazena izatea eta nahikoa tradizio literario idatzia izatea.

Arantzazura iristeko bidea ez zen erraza izan, ordea. Euskaltzaindiaren ezteiak

ospatzekotan zirela eta, jaiak eta ospakizunak beste proposamenik ez zegoela ikusirik, Gabriel Arestik zeharo suturik Euskaltzaindia zertarako sortu zen ekarri zuen gogora. Hala, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari txosten bat egin zezan eskatu zion. Izan ere, Mitxelena pertsona ezin aproposagoa zen egin beharreko lana egiteko: ezagutza sakonak eta ugariak zituen bai euskara zaharraren inguruan, bai euskalkie buruzkoak ere eta mundu mailako hizkuntzalaritzaren inguruan ere jakitun zen. Halaxe definitzen du Koldo Zuazok: “Hitz bitan esateko, premia ordu hartan behar zen laguna suertatu zen Euskal Herrian” (Zuazo, 2005:158).

Harturiko erabakien berri emateko, *Jakin* aldizkariak bere 33. zenbakian Euskaltzaindiak sinatu eta urriaren 5eko data duen agiria plazaratu zuen. Bertan argi adierazten da batasunaren beharrak erabateko babesa lortua zuela eta bide horretan Euskaltzaindiaren jarduna nolakoa izango zen ere adierazten da.

“Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza ,eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik” (Euskaltzaindia 1968: 53).

Horrez gain, Arantzazun hartu ziren erabakiak argitaratuko dituela jakitera ematen du eta aurrera begirako lanen aurrerapen eskematikoa ere eskaintzen du ortografiaz, *h* hizkiaren auziaz, morfologiaz eta euskal hitz zahar eta berrien formaz.

## 6-Ondorioak

Esan bezala, eredu estandarra sortzea konplexua izan zen, baina zailtasunik handienak hasieran izan ziren, Euskaltzaindiak lanari heldu eta Arantzazuko biltzarrean estandarizazioari hasiera ofiziala eman zion arte.

Bizirik baina ahulduta zegoen euskara bezalako hizkuntza txiki bati, erakundeen babesik gabe eta debekuaren atzaparretatik ateratzen ari zela egokitu zitzaion halako prozesu neketsuari eta korapilatsuari eutsi beharra. Baina, zorionez, zail eta konplexua izanagatik ere, egingarria ere izan zen hainbat eta hainbat euskalari eta euskaltzaleri esker.

*Jakin* aldizkariari dagokionez, ikusi ahal izan dugu hasiera-hasieratik batasunaren aldeko jarrera izan zuela eta jarrera hori plazaratzeaz gain, bide horretan, bultza egiteko neurriak hartu zituela, praktika koherenteari helduz. Aztertu dugun garaian (1956-1968) landu zituen gaiak ikusita, argi zegoen literatur hizkuntzaren batasuna beharrezko zutela, eta horren aldeko hautua egin zutela. Garai hartako eztabaida asko argitara atera zituzten eta, gainera, aldizkaria eztabaida horien bozgorailu ere izan zen sarritan, eztabaida ugari aldizkarietan ematen baitziren, idatziz, edonork ikusteko moduan eta, beraz, *Jakinek* ere bere aletxoak ipini zuen horretan.

Ikusi ahal izan dugun bezala, oztopoak ez ziren “kanpotik” etorritakoak izan. Larritasun handienak eragin zituzten oztopoak euskalari eta euskaltzaleen arteko eztabaidek eragin zituzten. Halako proiektu handien aurrean ezadostasunak izatea gauza arrunta dela ulertu behar dugu, hain gauza handia eta hain berria izateak aurreiritzi ezberdinak sortzen baititu.

Hala ere, hizkuntza hain ahul egoteak eta hutsuneak hain ongi identifikatuta egoteak prozesuaren norabidea zehazten lagundu zuten. Hau da, hizkuntzak bizirautea nahi zuten eta, horretarako, ezinbestean, bete beharreko bi helburu zituzten: kultur hizkuntza baten beharra eta literatur eredu bakarra osatzea. Bi betebeharrak horiek beharrezkotzat jotzen ziren hizkuntzaren biziraupenerako eta, horiek betetzeko, eredu estandarra behar zen. Beraz, hizkuntza salbatuko bazuten, eredu estandarra behar zen.

Estandarra osatzeko orduan, baina, berehala sortu ziren oztopoak. Lehenik eta behin, oroitu behar dugu euskaltzale orok ez zuela bat egiten aurretiaz egin dugun analisiarekin. Batzuen ustean, euskarak familia eta erlijio giroarekin aski zuen, ez zen

gehiago behar. Horiek prozesua oztopatzeari ekin zioten, horretarako hainbat eztabaida plazaratuz: euskalkiak galtzerainoko eragina izango ote zuen eta hizkuntza pobretzea zein erdalduntzea eragingo ote zuen.

Bestalde, euskal hitzei buruzko eztabaidak eta sorturiko iritzi ezberdinek estandarraren nolakotasunaren inguruko hausnarketa eta eztabaidak eragin zituzten. Izan ere, estandar horrek nola jokatu behar zuen eta hitz berriekin zer egin behar zuen erabakitzerako orduan ere ez ziren denak ados.

Azkenik, *h* hizkia izan zen eztabaida guztien ikur bilakatuko zena. Benetan eztabaida sutua eta gogorra, ia prozesua blokeatzera ere heldu zena. Azkenik, Baionako Biltzarraren proposamenaz eta Mitxelenaren babesari esker bere erabilera onartuz amaitu zen eztabaida.

Baina, esan bezala, oztopoen aurrean, Euskaltzaindiak ere izan zuen babes eta laguntzarik prozesuaren hasierari ekiteko. Eragile eta erakunde zenbaitek antolatutako biltzarrak (Baionakoa eta Ermuakoa kasu) babes horren erakusle argienak dira. Babes eta ekimen haiei esker iritsi zen Euskaltzaindia 1968ko Arantzazuko Biltzarra egitera eta, beraz, Euskara Batuaren sorrera ofizialari ekitera. Hala, urteek aurrera egin ahala, euskarak ere eredu estandar osatu bat sortu du eta edozein zeregin ofizialetarako erabilgarri dugu. 60ko hamarkadan diagnostikatutako hutsune horiek (kultur hizkuntza eta literatur eredu bakarra) argi beteta, 50 urte geroago zalantzarik gabe esan dezakegu euskarak bere biziraupenerako urrats garrantzitsua emana duela jadanik.

## 7. Bibliografia

A.Z. (1956). «Batasun izpiak». *Jakin* 2, 166-167.

Aurraitz [Balendin Aurre Apraiz] (1961). «Nora eroan gura gozuez». *Jakin* 15, 73-76.

Azurmendi, J. (1959). «Euskerak zergaitik bizi bear duan». *Jakin* 9, 75-80.

Azurmendi, J. (1965). «"H" letrari buruz galdezka». *Jakin* 20, 25-27.

- Bastarrika, I. (1957). «"Txillardegi" jaunari». *Jakin* 5, 99-102.
- Biltzarkideak (1968) «Erabakiak». *Jakin* 31-32, 73-74.
- Euskaltzaindia (1968) «Agiriak». *Jakin* 33, 53-54.
- Garmendia, S. (1968). «Euskeraren batasuna». *Jakin* 31-32, 28-38.
- Gerediaga Alkartea (1968). «Deia». *Jakin* 31-32, 15-16.
- Intxausti, J. (1959a). «Illobira bultzaka». *Jakin* 9, 83-88.
- Intxausti, J. (1959b). «Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. IV. Bilabo, 1959». *Jakin* 11, 86-91.
- Irigaray, A. (1968). «Literatur-euskera batasun baten aldera». *Jakin* 31-32, 58-61.
- Kamiñazpi [Jose Maria Etxaburu] (1960). «Zeintzuk dira euskal itzak». *Jakin* 13, 61-68.
- Kamiñazpi (1965). «Euskeraren batasuna dala-ta». *Jakin* 19, 14-16.
- Lafitte, P. (1968). «Batasunaren bideak». *Jakin* 31-32, 62-65.
- Laspiur, I. (1968). «Euskal-joskera». *Jakin* 31-32, 39-57.
- Letamendia, J.A. (1968). «Zenbait iritzi batasunari buruz». *Jakin* 31-32, 19-27.
- Mendizabal, P. (1956). «Euskal gramatika llabur». *Jakin* 2, 168-169.
- Mendizabal, P. (1957). «Jakintitzak». *Jakin* 3, 121-122.
- Onaindia, S. *Eskutitzak* (1974). Bilbo: Gráficas Bilbao.
- Txillardegi [Jose Luis Alvarez] (1959). «Batasunaren bidea». *Euskera IV*, 150-170.
- Villasante, L. (1959). «Bizitzatik urbil». *Euskera IV*, 101-116.
- Zuazo, K. *Euskara Batua ezina ekinez egina* (2005). Donostia: Elkar argitaletxea.
- Zuzendaritza (1960a). «Batasun billa». *Yakinen geigarri* (Otsaila 1960), 1.
- Zuzendaritza (1960b). «Euskaltzaindiaren laguntzailleak». *Yakinen geigarri* (Epailla 1960), 1.
- Zuzendaritza (1965). «Baiona'ko biltzarraren erabakiak». *Jakin* 18, 20-28.
- Zuzendaritza (1968). «Batasuna bai ala ez». *Jakin* 31-32, 1-13.